

**AURREKONTU IREKIAK**  
**2022/23**  
**TXOSTENA**



**GIPUZKOA**  
**ETORKIZUNA**  
**ORAIN**

## AURKIBIDEA

0. SARRERA, **3.or.**

1. AURREKONTU IREKIAK 2022/23 PARTE-HARTZE PROZESUAREN ARTIKULAZIOA, **5.or.**

1.1 PROZESUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA, **5. or.**

1.2 PROZESUA GIZARTERATZEKO KANALAK, **7. or.**

### 1. FASEA

1.2.1. *Komunikabideetan zabaltzea*, **7. or.**

1.2.2. *Frankeoa ordainduta duten galdetegiak eta informazio liburuxkak postontziratzea*, **8. or.**

1.2.3. *Paper bidezko parte-hartzea*, **9. or.**

1.2.4. *Parte-hartze birtuala*, **10. or.**

1.2.5. *ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?*, **11. or.**

### 2. FASEA

1.2.6. *Komunikabideetan zabaltzea*, **12. or.**

1.2.7. *Frankeoa ordainduta duten galdetegiak eta informazio liburuxkak postontziratzea*, **13. or.**

1.2.8. *Aurrez aurre eta paper bidez parte hartzea*, **14. or.**

1.2.9. *Parte-hartze birtuala*, **15. or.**

1.2.10. *Proiektuak bozkatzea*, **16. or.**

2. PROZESUAREN EMAITZAK, **16.or.**

2.1. PARTE-HARTZE MAILAREN AZTERKETA, **16. or.**

2.2. IREKIAN EGINDAKO EKARPENEN AZTERKETA, **17. or.**

2.3. FITXA TEKNIKOA, **17.or.**

2.4. PARTE-HARTZEAREN EMAITZAK, lehenengo FASEA, **18. or.**

2.4.1. *Parte-hartzea generoaren arabera*, **20. or.**

2.4.2. *Histograma*, **21. or**

2.4.3. *Eremu geografikoa*, **22. or.**

2.4.4. *Emaitzak*, **23 .or.**

2.5. PARTE-HARTZEAREN EMAITZAK, 2. FASEA, **29. or.**

2.5.1. *Parte-hartzea generoaren arabera*, **33. or.**

2.5.2. *Histograma*, **34. or.**

2.5.3. *Eremu geografikoa*, **35.or.**

2.5.4. *Emaitzak*, **36.or.**

2.6. PARTE-HARTZEAREN EMAITZA OROKORRAK, **39. or.**

3. GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN KONPROMISOA, **40. or.**

## 0. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019-2023ko aginte planaren esparruaren barruan, etapa honetarako Aurrekontu Irekiak programaren azken partaidetza prozesua egiten ari da.

Lurralde mailan ez ezik globalean ere, bizi dugun eraldaketa sozio-ekonomikoaren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak lanean jarraitzen du gobernantza kolaboratibo eta irekiaren eredu berri bat arian-arian ezartzeko, eta horren bidez bere kudeaketa paradigma aldatu eta herritarren inplikazioa areagotzeko, sortzen ari diren erronka eta beharrei aurre egite aldera.

Ondorengo lerroetan 2021eko abenduan hasi eta 2023ko ekitaldian luzatuko den Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren xehetasunak zehazten dira.

Orain arte landutakoaren ildotik, 2022/23 epealdiko Aurrekontu Irekiak programaren prozesuan berrikuntzak sartu dira, iritzi publikoari protagonismo eta pisu handiagoa emateko, erabakiak hartzeari dagokionez, eta horretarako herritarren parte-hartzea errazten deneko uneak zabaldu dira, prozesuaren diseinutik ebaluazioaren azken fasera arte.

Gainera, azterketa prozesuaren metodologia eta garapena hobetzeko asmoz, edizio honetan lantalde hauek eratu dira:

- Aurrekontu Irekiak kudeatzeko **lantalde teknikoa**. Talde hori arduratzen da prozesuaren betekizun eta irizpide teknikoak ezartzeaz eta haren jarraipena egiteaz. GFAko bertako barne-langileek osatua dago.
- Aurrekontu Irekiak **komunikazio lantaldea**, prozesua lurraldean zabaltzeko kudeaketa egiteko.
- Halaber, edizio honetan, herritarren proposamen **bakoitzarekin batera identifikazio zenbaki** bat aurkeztu da. Zenbaki horren bidez, parte-hartzaileak bere proposamenaren egoeraren jarraipena egin dezake, eta proposamena zertan amaitzen den jakin dezake (baztertua, kontuan hartua, beste batzuekin taldekatua, proiekturako ekarpena,...); modu horretan parte-hartze prozesuaren trazabilitatea bermatzen da.

Txosten honetan prozesuaren faseak biltzen dira, eta herritarren parte-hartzearen bidez lortutako emaitzak aurkezten dira, gobernantza irekiaren eta lankidetzakoaren eredu arautzen duten printzipioei jarraituz. Eredu horren gainean oinarritzen da foru kudeaketa, lurraldearen etorkizuna modu partekatuan eraikitzearen alde foru erakundeak egina duen apustuan.

Txostenari hasiera emateko, **partaidetza prozesuaren garapena** nola artikulatzen den deskribatzen da. Ondoren, prozesuaren analisiaren oinarri den **metodologia** azaltzen da, gero, parte-hartze prozesuaren lehen eta bigarren faseen esparruan **lortutako emaitzak** aurkezten dira eta, amaitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekimen honen esparruan hartzen dituen konpromisoak txertatzen dira.

Txosten honetan adierazitako partaidetza prozesuaren emaitzak azterlan sozial eta estatistikoen berezko kalitate estandarrei jarraituz lortu dira eta emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatzen da, bai eta datuen zaintza zorrotza eta anonimotasun- eta konfidentzialtasun-bermeak ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorrira.

## 1. AURREKONTU IREKIAK 2022/23 PARTE-HARTZE PROZESUAREN ARTIKULAZIOA


### 1.1 PROZESUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA

---

Aurreko ekitaldietan bezala, aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza prozesu bat jarri du abian, herritarren inplikazio eta parte-hartze maila sendotu eta hobetzeko, lurraldearen egungo beharrei erantzungo dieten konponbideak identifikatzean.

2021eko abenduan, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, 2022/23ko Aurrekontu Irekiak prozesua prestatzeko eta gauzatzeko makineria jarri zen martxan.

Prozesuaren irismena kontuan hartuta, prozesuaren xehetasun guztiak modu ezin hobean bideratzeko, jarraian azaltzen den **jarduera protokoloa** idatzi zen. Protokolo horretan, prozesuaren mugarriak, datak eta parte hartzen duten pertsonak eta organoak jasotzen dira.



Aurreko prozesuetan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldez aurretik jarritako zenbait irizpide ezarri ditu Gipuzkoako herritarren ikuspegia kontrastatu eta aztertzeko.

2022/23ko Aurrekontu Irekiak bideratzeko partaidetza prozesua prozesu landu eta garantista baten bitartez gauzatu da. Prozesu horrek herritarrekiko komunikazioko eta publizitate aktiboko estrategia bat integratzen du, eta Lurralde Historikoaren beharren araberako epeak ezartzen ditu. Era berean, prozesuak modu integralean eta ahalik eta koherentzia eta gardentasun handienekin erantzun nahi die proposatutako ekimenei, herritarrei arreta emateko eta herritarrek parte hartzeko kanal presentzialak eta birtualak eratuz, Gipuzkoako herritarren egunerokotasunari eragiten dioten beharrei eraginkortasunez erantzuteko.

Azken batean, Aurrekontu Irekiak izeneko prozesua herritarrek parte hartzeko prozesu bat da, etengabe egokitzen ari den metodologia bat planteatzen duena, benetako premietara egokitzen den erantzun egoki bat emateko, herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea hobetzeko irizpideen formulazio berri bat txertatuz.

## 1.2 GIZARTERATZEKO ETA PROZESUAN PARTE HARTZEKO KANALAK

### 1.FASEA: PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Komunikazio estrategia hainbat bidetatik gauzatu da, prozesuaren hedapen, zabaltze eta sozializazio handiena bermatuz:

- Informazio liburuxkak eta frankeo ordaindutako galdetegiak postontziratzea.
- Online parte hartzea, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren webgunearen bitartez.

#### 1.2.1 Komunikabideetan zabaltzea

Gobernantza Sailak, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren gidaritzapean, prozesuaren sozializazio aktiboaren aldeko apustua egin du, ekimena prentsan zabalduz.

Gainera, prozesua aurkezteko prentsaurrekoa egin zen 2022ko apirilaren 22an, Gobernantzako diputatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile den Eider Mendozaren eskutik, Mikel Pagola Herritarren Partaidetzarako zuzendariarekin batera.

Prentsaurreko horretan, prozesuaren ildo nagusiak eta lehen fasearen xehetasunak azaldu ziren:

- Parte hartzeko bideak, eskakizunak eta azaldutako gaiak.
- Ekitaldi honetako berritasunak

### 1.2.2. Informazio liburuxkak eta frankeoa ordainduta duten galdetegiak postontziratzea

2022/23ko Aurrekontu Irekiak programaren prozesuaren barruan, eta lurralde osoan hedatuko dela eta partaidetza prozesurako sarbidea demokratizatuko dela bermatzeko, 325.000 txartel ale prestatu eta lurraldeko etxe guztietara bidali ziren, informazio materialarekin batera. Material horrek, gardentasun ariketa batean, foru aurrekontua arlo desberdinen artean nola banatzen zen adierazten zuen eta prozesuan parte hartzea errazteko beharrezkoa zen informazio guztia zuen.

#### Parte hartzeko txartela

**aurrekontu irekiak 22/23**

Betea izan behar duen formularioa da. Betea izan behar duen formularioa da. Betea izan behar duen formularioa da. Betea izan behar duen formularioa da.

**Zein da zure ideia/proposamena 2022-2023 Aurrekontu Irekietarako eta zein beharrei erantzuten die?**  
¿Cuál es tu idea/proposición para los Aurrekontu Irekiak 2022-2023 y a qué necesidades responde?

**Ideialaren / proposamenaren deskribapen laburra**  
Breve descripción de la idea/proposición

**Zein gaitri dagokio zure proposamena? (Doktrina markatuz):**  
¿A qué temáticas corresponde tu propuesta? (marcar sólo una):

- Ekonomia, Enplegua eta Turismoa
- Ekonomia, Empleo y Turismo
- Kultura eta Auzo / Cultura y Ocio
- Kultura eta Auzo / Cultura y Ocio
- Gizarte-eraldaketa: Haurrek eta Gaiertza, Adierikak, Desgaitasuna, zerebarik, Transformación social: Infancia e Inclusión Social, Personas Mayores, Incapacidad, cuidados
- Mugarikatasuna eta garapena / Movilidad y transporte
- Ingurumena / Medio ambiente
- Lurralde-eraketa eta mendiak / Mundo rural y montes
- Eskola / Escuela
- Berdintza eta jantzerak / Igualdad y diversidad
- Gaitza eta kirolak / Juventud y Deportes
- Bide-azpiegiturak / Infraestructuras viarias

**BADUZU ZER ESAN, BADUGU ZER GUIL. GIPUZKOAREN ETORKIZUNA ERAIKI DEZAGU DENON ARTEAN.**

Informazio liburuxka



Aldi berean, telefono linea iraunkor bat ezarri zen, parte hartu nahi zuen edozein herritarri laguntza emateko eta prozesuaren inguruan sortutako zalantzak argitzeko.

### 1.2.3. Paper bidezko parte-hartzea

Hona hemen aurrez aurreko partaidetzarako atondu ziren kanalak:

- **Posta arrunta.** Frankeoa helmugan ordainduta duten txartelak bidaltzea.
- **Proposamenen erregistroa** Foru Aldundiaren informazio bulegoetan eta udaletan.
- **2022/23ko BERRITASUNA: informazio saioetan** proposamenak jasotzea.

Covid ondoko egoeratik eratorritako normaltasun berriaren ondorioz, aurten berriz ekin zaie Gipuzkoako gizarteko era **askotako kolektibo/erakundeekin egindako saioei**. Guztira, 5 saio presentzial egin dira, Eider Mendoza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako diputatu eta bozeramailea, eta Mikel Pagola, Herritarren Partaidetzarako zuzendaria, buru zirela, udalerrri bakoitzeko toki administrazioko ordezkari batekin batera, udalerrri hauetan:

- **Zarautz:** maiatzaren 11n, Zarauzko Udaleko osoko bilkuren aretoan. *Gaia* **“Urola Kostako gazteak eta elkarte sarea”**.

*Publikoa:* norberaren izenean bertaratzen zirenak.

*Tokiko administrazioaren ordezkaria:* Xabier Txurruka, Zarauzko alkatea.

- **Eibar:** maiatzaren 12an, Errebal plazan.

*Gaia:* “**Gure adinekoak eta hirugarren adinekoak zaintzea**”.

*Publikoa:* Hirugarren adinekoen elkarteak

*Tokiko administrazioaren ordezkaria:* Ana Tellería, Eibarko Udaleko zinegotzia

- **Tolosa:** maiatzaren 16an, Tolosako kultur etxeko aretoan, Triangelu plazan.

*Gaia:* “**Euskara eta elkarre sarea**”.

*Publikoa:* gazteen elkarteak

*Tokiko administrazioaren ordezkaria:* Joseba Ormazabal, Tolosako zinegotzia, euskara teknikaria.

- **Irun:** maiatzaren 17an, Amaya kultur etxean.

*Gaia:* “**Aniztasuna eta kultura aniztasuna**”.

*Publikoa:* elkarteak.

*Tokiko administrazioaren ordezkaria:* ez da ordezkariarik izan.

- **Donostia:** maiatzaren 18an – GUNEAN.

*Temática:* “**Aurrekontu irekien informazioa**”.

*Publikoa:* herritar guztiei irekia

*Tokiko administrazioaren ordezkaria:* ez da ordezkariarik izan

#### 1.2.4. Parte-hartze birtuala

Era berean, prozesuaren komunikazio-, hedapen- eta partaidetza-estrategiaren barruan, eta orain arte ezarritako metodologiari jarraituz, bide telematikoak gaitu ziren parte-hartzea ahalbidetzeko:

- <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza> **webgunea**, parte hartzeko galdetegia eta prozesuari buruzko informazio zabala zituena.
- **QR kodea**, inprimatutako agirietan azaltzen zena.

### 1.2.5. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

Apirilaren 25etik maiatzaren 20ra bitartean martxan egon den Aurrekontu Irekiak 2022/23 programaren lehen fasean, galdera bat egin zitzaien 16 urtetik gorako pertsona guztiei:

**Zein da 2022/23ko Aurrekontu irekietarako zure ideia/proposamena eta zer beharri erantzuten dio??**

**Idea/proposamenaren deskribapen laburra**

Beste edizio batzuetan ez bezala, eta herritarrek aurkeztutako proposamenak zehazten laguntzeko, aurtan **10 jarduera eremu** planteatu dira, eta parte-hartzaileek bertan kokatu behar zituzten beren proposamenak:

- **Ekonomia, Enplegua eta Turismoa**
- **Kultura eta Aisialdia**
- **Gizarte politikak: Haurrak eta Gizarte inklusioa; Adinekoak; Desgaitasuna, zaintzak.**
- **Mugikortasuna eta Garraioak**
- **Ingurumena**
- **Landa Ingurumena eta Mendiak**
- **Euskara**
- **Berdintasuna eta Aniztasuna**
- **Gazteria eta Kirolak**
- **Bide azpiegiturak**

**Parte hartzeko betekizunak:**

16 urtetik gorakoa izatea eta beharrezko datuak ematea horiek egiaztatzeko. Prozesuaren fase honetan, **pertsona bakoitzak nahi zuen adina aldiz** har zezakeen parte, xede horretarako gaitutako kanalen bitartez.

Herritarrek parte hartzeko epea amaitutakoan, Aldundiko talde teknikoak aztertu zituen proposamenak.

Teknikoki egiaztatu zen proposamenek protokoloan ezarritako baldintzak betetzen zituztela, eta, ondoren, 2022/23ko Aurrekontu Irekiak prozesuaren 2. fasean herritarrek hautatzeko moduko proiektuak sortzeko ardura zuten zuzendaritzetara bidali ziren proposamenok.

Zuzendaritzek herritarrek zein proiektu balora zitzaketen zehaztu ondoren, lan saio bat egin zen Gipuzkoako Partaidetzarako Gizarte Kontseiluarekin proiektuak kontrastatzeko eta horien jarraipena eta balorazioa egiteko.

## 2. FASEA: PROIEKTUAK BOZKATZEA

Partaidetzaren 2. fasean gauzatu zen komunikazio estrategia lehenengo fasekoaren berdina izan zen:

- Informazio liburuxkak eta frankeoa ordainduta zuten galdetegiak postontziratzea.
- Online parte hartzea.
- Irrati iragarkiak.
- Kapsulak 19 udalerritan.

### 1.2.6. Komunikabideetan zabaltzea

2022ko irailaren 12an prentsaurreko bat egin zen Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren 2. fasea aurkezteko, Gobernantzako diputatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile den Eider Mendozaren eskutik, Mikel Pagola Herritarren Partaidetzarako zuzendariarekin batera.

Prentsaurreko horretan, prozesuaren ildo nagusiak eta bigarren fasearen xehetasunak azaldu ziren:

- Parte hartzeko bideak, eskakizunak eta azaldutako gaiak.
- Ekitaldi honetako berrietasunak

# AURREKONTU IREKIAK 2022/23

## 1.2.7. Informazio liburuxkak eta frankeoa ordainduta duten galdetegiak postontziratzea

Aurreko fasean bezala, 325.000 txartel ale eta informazio material prestatu ziren proiektuak bozkatzeko faserako, eta lurraldeko etxe guztietara bidali ziren. Informazio materialak proiektu bakoitzaren azalpen zabala ematen zuen eta txartelak prozesuan parte hartzeko bide ematen zuen, gehienez 10 proiektu bozkatzeko aukera emanez.

### Parte hartzeko txartela



### Informazio liburuxka




Fase honetan ere, telefono linea iraunkor bat erabili zen, parte hartu nahi zuten herritarrei laguntza emateko eta prozesuaren inguruan sortutako zalantzak argitzeko.

### 1.2.8. Aurrez aurre eta paper bidez parte hartzea

Hona hemen aurrez aurreko partaidetzarako gaitutako kanalak:

- **Posta arrunta.** Frankeoa helmugan ordainduta duten txartelak bidaltzea.
- **Proposamenen erregistroa** Foru Aldundiaren informazio bulegoetan eta udaletan.
- **2022/23ko BERRITASUNA:** COVID-19 pandemiaren ondoren, berriro ekin zaio proposamenak aurrez aurre jasotzeari **informazio eta partaidetzarako kapsulen bitartez**. Kapsula hori 20 egunetan eta 19 kokapenetan jarri zen prozesua kalean bertan zabaltzeko eta partaidetza, hau da, proiektuen bozketa bultzatzeko.





### 1.2.9. Parte-hartze birtuala

Prozesuaren komunikazio-, hedapen- eta partaidetza-estrategia 2. fasean lehenengo fasekoa berbera izan zen.

- <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza> **webgunea**, parte hartzeko galdetegia eta prozesuari buruzko informazio zabala zituena.
- **QR kodea**, inprimatutako agirietan azaltzen zena.

### 1.2.10. PROIEKTUAK BOZKATZEA

Aurrekontu Irekiak 2022/23 ekimenaren herritarren partaidetzarako fase hau **irailaren 12tik urriaren 7ra bitartean** gauzatu zen.

#### Parte hartzeko betekizunak:

16 urtetik gorakoa izatea eta Gipuzkoan erroldatua egotea.

Ezinbestekoa izan da parte-hartzaileen datu pertsonalak biltzea, parte hartzeko baldintzak betetzen zituztela egiaztatzeko. Oraingo honetan, lehenengo fasean ez bezala, **pertsona bakoitzak behin bakarrik parte har zezakeen bozketa prozesuan**. Pertsona beraren bozketa bat baino gehiago hautemanek gero, haren parte-hartzea baliogabea izango zen.

## 2. PROZESUAREN EMAITZAK

Ikuspegi metodologikoa bat dator datu estatistikoak aztertzeke erabili ohi diren ikerketa teknika kualitatibo eta kuantitatiboekin.

### 2.1. PARTE-HARTZEAREN MAILAREN AZTERKETA

Parte-hartzeari buruz ondoren azaltzen den azterketan modu berezian tratatzen dira datuak fase bakoitzean.

Laginaren tamaina honako hau da: 2022/23ko Aurrekontu Irekiak prozesuan zehar gaitutako kanalen bidez galdetegia behar bezala bete duten parte-hartzaileen guztizko kopurua. Parte-hartzea honako adierazle eta aldagai hauen arabera bereiziko da:

- Onlineko parte-hartzaileen kopurua eta liburuxka paperezko euskarrian bidali duten parte-hartzaileen kopurua.
- Generoaren arabera azterketa, gizonen eta emakumeen partaidetzaren arabera.
- Lagineko batz besteko adina
- Parte-hartzaileen jatorrizko udalerria

**Ohar metodologikoa:** Emaizta horiek lortzeko, bildutako datuak (aurrez aurre zein online) filtratuko dira. Halaber, adinaren banaketa islatzen duen histograma bat egingo da eta laginaren banaketa geografikoa behatuko da.

## 2.2. EKARPENEN AZTERKETA

---


Herritarren ekarpenak kuantifikatu eta kodetu dira partaidetza prozesuaren protokoloan zehaztutako eremuetan, parte hartu duen laginak egindako ekarpenak biltzeko moduko mapa kualitatiboa egin ahal izateko.

## 2.3. FITXA TEKNIKOA

---

- Unibertsoa: 626.228 (2021/01/01eko errolda, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak. Iturria: Eustat.) [322.759 emakume eta 303.767 gizon].
- Laginaren tamaina: 1.530 pertsona eta 11 erakunde parte-hartzaile, prozesuan onartuta.
- Metodoa: Laginketa ez-probabilistikoa
- Errore-marjina: 626.526 biztanletarako 1.530 personako lagin batekin, gehienez  $\pm\%2,49$ ko errore-marjina lortzen da [erabilitako konfiantzartea %95 da].
- Informazio bilketa: Liburuxkak bidalita, erregistratuta eta online egindako ekarpenak.
- Egiteko datak: 2022ko apirilaren 25etik maiatzaren 20ra.

## 2.4. PARTE-HARTZEAREN EMAITZAK - Lehenengo Fasea -




Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren 1. fasearen esparruan, **guztira**, herritarren **2.398 galdetegi/txartel** jaso dira. Guztizko kopurutik, **1.880 onartu dira** eta **518 prozesutik kanpo** geratu dira, parte hartzeko aldez aurretik ezarri diren baldintzak ez betetzeagatik:

- Ezarritako gutxieneko adina ( 16 urte) ez izatea
- Beharrezkoa den identifikaziorik gabeko formularioak
- Ekarpenik gabeko formularioak, zuri utzitako txartelak

Prozesuan **onartutako 1.880 galdetegiak**, guztira, **1.541 personak eta erakundek** bidali dituzte.

**Guztira, lagina prozesuan onartutako 1.541 pertsonak eta erakundek osatzen dute**

### Parte hartzeko kanala, 1. fasea




Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuan berriz ikusi den bezala, herritar gehienek aukeratu duten **partaidetza kanala aurrez aurrekoa** izan da, % **87,7** (2.102 pertsona), eta **onlinekoa**, aldiz, partaidetza osoaren (296 pertsona) % **12,3** (296 pertsona) izan da.


### 2.4.1. Generoaren araberako parte-hartzea

Parte-hartzaileek emandako datuei gagozkiela, **gizonen eta emakumeen partaidetza mailak oso orekatuak** izan dira, bien artean puntu 1eko aldea baitago, ondoren azaltzen diren grafikoetan ikus daitekeenez.


**Guztira, 1. fasea**



**Online**



**Aurrez aurre**




## 2.4.2. Histograma

Parte-hartzaileen adinari dagokionez, hurrengo grafikoan islatzen da adin tarreek prozesuan izan duten eragina, parte hartu duten erakundeak bereizita. Oro har, **partaidetza prozesuan eragin handiena izan duen adin tartea 65 urtetik gorakoena izan da.**

Hala ere, **onlineko parte-hartzeari bagagozkio**, ikus daiteke joera aldatu egin dela eta **30-40 urte bitarteko adin tarreak** izan duela presentziarik handiena bertan.


Aitzitik, **aurrez aurreko parte-hartzean** ikusten da **adin tarte aktiboenak 50 urtetik gorakoak izan direla.**




### 2.4.3. Parte-hartzea eremu geografikoaren arabera

**Partaidetza eremu geografikoaren arabera** aztertuta, lortutako datuek adierazten dute Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren 1. fasean **Donostia/ San Sebastián** hiriak eduki duela pisu handiena, % **33,4** hain zuzen.


#### Gutzizko parte-hartzea, 1. fasea



#### On line



#### Aurrez aurre



#### 2.4.4 Emaidzak

**Onartutako 1.880 galdetegi/txarteletatik, guztira, herritarrek egindako 1897 ekarpen** jaso dira. Azterketa teknikoa egin ondoren, **880 onartu dira eta 1017 bota dira atzera** honako arrazoi hauetakoren batengatik:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa ez izatea.
- Interes publiko orokorrekoa ez izatea.
- Ingurumenari edo lurraldeko beste interes batzuei kalte handia egitea.
- Balorazioa egitea eragozten duten termino generikoetan azalduta egotea.
- Proposamena ez ulertzea.
- Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuari bideratutako 200.000€-ko aurrekontua gainditzea.
- Ez egotea Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuan ezarritako 10 eremuen barruan.
- Proposamena ez izatea. Iritzi/ hausnarketa pertsonala izatea.
- Foru Araudiaren aurkakoa izatea.
- Inbertsioa ez izatea.

Ondoren, onartutako proposamenak jorratzen duten gai eremuaren arabera sailkatu dira. Horrela, bada, bildutako ekarpenak herritarren kezken isla direla ikus daiteke; izan ere, herritarren kezka horiek **Mugikortasunaren eta Garraioaren (218), Bide Azpiegituren (163) eta Gizarte Politiken (158)** esparruetan ardatzen dira, eta, ondoren, **Ingurumenaren eta Landa Ingurunearen eta Mendien** esparruetan, hurrenez hurren.

### Ekarpenak gaika



Jarraian, Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren lehenengo fasean bildutako ekarpenen laburpena azaltzen da. Ekarpenak sailkatuta eta multzokatuta daude GFAn arlo horretan eskumena duten zuzendaritzen arabera, ondoren balorazio ekonomikoa eta teknikoa egiteko.

#### Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Zuzendaritza honetan jasotako herritarren ekarpenak honako hauei buruzkoak dira: lurraldean **bidegorri tarte gehiago** egitea; **oraingo ibilbideak handitzeko** beharra mugikortasun iraunkorraren mesederako; **lehendik daudenak gaurkotzea**, besteak beste, komunak edo bizikletak konpontzeko zutabeak jarriz; **garraio publikoko zerbitzua, linea** erabilgarriak **eta** eskainitako **ordutegiak indartzeko beharra**; hiru lurraldeetako **garraio publikoko txartelak bateratzea eta digitalizatzea**; eta **bide berdeak** mantendu eta egokitzea, erabiltzaileek segurtasunez erabil ditzaten.

#### Errepideen Zuzendaritza Nagusia

Errepideen Zuzendaritza Nagusira zuzendutako eskaerei dagokienez, honako hauek izan dute presentzia handiena: bide **zoruak egokitzea**; **autobideko tarifak kentzea eta konexioak eta sarbideak hobetzea**. Horietaz gain, beste hauek ere proposatu dira,

besteak beste: bigarren mailako bide sarea espaloi eta bazterbide nahikoez hornitzea; **pantaila akustikoen** bidez kudeatzea ibilgailuen joan-etorriek eragindako kutsadura akustikoa; eta foru errepideen sarea hobetzea **segurtasun elementu berriak jarritz**.

## Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusia

---

Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusian bildutako proposamenek honako hauek aipatzen dituzte batez ere: **hondakinen kudeaketa** maila guztietan **hobetzen jarraitzeko** beharra; **energia berriztagarrietan** inbertitzeko nahia; eta **ibaiak, hondartzak eta itsasertzak garbitasun egoera onenetan** mantentzearen garrantzia.

## Plangintza, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoen Zuzendaritza Nagusia

---

Plangintza, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoen Zuzendaritza Nagusian gehien egin diren eskaerak honakoak dira: hainbat kolektiborentzat **egoitza instalazio berriak sortzea**; mendekotasuna duten pertsonen eta familia eredu berriei ematen zaizkien **zenbatekoak hobetzea**; herritarrei **informazio gehiago emateko eta izapide burokratikoak arintzeko** beharra; eta **dibertsitate funtzionala edo kognitiboa duten pertsonentzako lanpostuak sortzea**.

## Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia

---

Nekazaritzari eta Lurralde Orekari dagokienez, **landa eremuetarako lan poltsa espezifiko bat eskatzen da**, bai eta **ustategien modernizazioa eta digitalizazioa**, eta **tokiko produktua hainbat kanpainaren bidez sustatzearen** garrantzia ere.

## Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia

---

Zuzendaritza honi egindako proposamenak honako hauek dira: **mendiak kontserbatzearen eta lurraldea bertako landareekin birlandatzearen garrantzia**; **bideak, bidezidorrak eta baso pistak garbitzea eta mantentzea**; eta lurraldeko **fauna eta flora zaintzea eta erregistratzea**.

## Mendetasunari eta Desgaitasunari Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia

Zuzendaritza honi buruzko ekarpenek honako hauek nabarmentzen dituzte: **egoitzen kudeaketa hobetzeko** beharra, erabiltzaileen beharrei erantzuteko langile espezializatu gehiago emanez; kolektibo horri zuzendutako **okupazio programazioa** hobetzearen egokitasuna; **etxeko laguntza indartzea**; **animaliekin programa terapeutikoak** sortzea; eta **informazio eta jarraipen zerbitzu** baten beharra, mendeko pertsonak beren kargura dituzten familien kudeaketa burokratikoak errazteko.

## Kultura Zuzendaritza Nagusia

---

Kultura Zuzendaritza Nagusiari honako eskaera hauek egin zaizkio: **dagoen kultura eskaintza handitzea**; **bertako talentua bultzatzea**; Gipuzkoako **ondarea kontserbatzea**; **kultura instalazio berriak sortzea edo gaitzea**; eta, oro har, kultura bultzatzea gai horretara bideratutako **kontsumo bonuen** bidez.

## Ekonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

---

**50 urtetik gorakoentzako enplegua** da sustapen ekonomikoari dagokionez babes handiena lortu duen proposamena, eta, ondoren, **gazteentzako eta dibertsitatea duten pertsonentzako enplegua sortzea**, eta **Lab/Hub** bat sortzeko aukera, desberdinen artean sinergiak eta enplegu aukerak sortzeko.

## Kirol Zuzendaritza Nagusia

---

Zuzendaritza honi egindako eskaerak honakoetan ardatzen dira: **kirol instalazio berriak** hainbat diziplinatan aritzeko; egungo **kirol eskaintza handitzea**; eta lurraldeko instalazioetara **sartzeko txartelak bateratzea**.

## Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia

---

Arlo honetan presentzia handiena izan duten alderdiak honako hauek izan dira: **laguntza psikologikoko zerbitzu** baten beharra; **aterpetxeak** sortzea; **laguntza-zerbitzu** bat egotea; eta kolektibo horiek zaintzearen garrantzia indartuko duten **kontzientziazio kanpainak** egitea.

## Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako Organoa

Berdintasunaren aldeko **kontzientziazio eta dibulgazio kanpainak** dira esparru horretan trakzio eragile gisa aipatzen direnak.

## Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia

Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko, **doako irakaskuntza** eskatzen da, **kultur programazioa** euskaraz egitea, **jarduera euskaraz garatzen duten klubei zuzeneko laguntzak** ematea, eta eguneroko bizitzako **alderdi/erregistro ezberdinetan euskaraz mintzatu ahal izateko bide berriak** aurkitzeko beharra.

## Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusia

Landa inguruneko **bizimodua** sustatzea, **landa bideak eta landa bidexkak egokitzeko** beharra, **zuntz optikoaren instalazioa** eta **garraio publikoarekiko lotura hobea** dira Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusian biltzen diren eskaera nagusiak.

## Gazteria Zuzendaritza Nagusia

Gazteei zuzendutako **kultura programazioa**, **sozializatorako espazioak sortzea**, **adikzioei buruzko prebentzio kanpainak** eta **udalekuetako plaza kopurua handitzeko** aukera izan dira Gazteria Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako eskaerak.

## Turismoko Zuzendaritza Nagusia

**Gipuzkoako enklabeak eta landa turismoa sustatzea** dira eskaeretan agertu diren helburuak.

## Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritza Nagusia

Proposamenak **migrantzaileen integrazioan eta aholkularitzan** ardazten dira, hainbat kanalen bitartez.

## Berrikuntza eta Nazioartekotze Zuzendaritza Nagusia

---

**Merkataritza arloko eta tokiko digitalizazioa** da Berrikuntza eta Nazioartekotze Zuzendaritza Nagusiari eskatzen zaiona.

## 2.5. PARTE-HARTZEAREN EMAITZAK - Bigarren Fasea -

Aldundiko talde teknikoak partaidetza prozesuaren lehen fasean jasotako proposamenak sailkatu, elkartu eta aztertu ondoren, arlo bakoitzak proiektuen bigarren bozketa fasera igaroko ziren proiektuak zehaztu zituen, eta **36 proiekturen zerrenda** osatu zen. Hona hemen zerrenda:

### KULTURA ETA AISIALDIA

Gipuzkoako talentu gaztea sustatzea.

Gipuzkoako ondarea zaharberritzea

### LANDA INGURUNEA ETA MENDIAK

Mendi Publikoak mantentzea eta garbitzea.

Basoak bertako espezieekin basoberritzea.

Landa inguruneko bide homologatuak egokitzea.

Elikadura jasagarria eta osasungarria sustatzeko ekimenak.

### GIZARTE POLITIKAK

Nahasmendu mentala duten adingabeei arreta emateko eguneko zentroa.

Gaixotasun mentala duten pertsonak gizarteratzea.

Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa babestea.

Lan aukerak gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeentzat.

Gizarte bazterketako osasun mentalari buruzko sentsibilizazio kanpaina.

Familiarik gabeko gazteentzako prebentzio programa eta komunitate jarduerak.

Ettxerik gabeko pertsonentzako aterpetxe plazak irekitzea.

Kontsumo hasiberrien, eskola porrotaren eta portaera arazoaren prebentzio programa

### EKONOMIA, ENPLEGUA ETA TURISMOA

Denbora bankuak martxan jartzea.

Gaitasun humanistiko/sozialak sustatzea enpresen iraunkortasunean.

Gazteek sustatutako enpresa proiektu berriak finantzatzea.

## EUSKARA

- Galtzaundi egunkaria digitalizatzea.
- Gizartean euskararen ulermena zabaltzea.
- Lantokietan euskaraz lan egitea.
- Euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko beka.
- Kirolaren eremuan euskara sustatzea.

## MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

- Bizkleta bideen erabilera partekatuari buruzko gida.
- Bizikletak elektrifikatzeko dirulaguntzak.
- Foru bidegorrietan hiri altxariak, pixatokiak eta iturriak jartzeko dirulaguntzak.

## GAZTERIA ETA KIROLA

- Udalekuetarako eta udako jardueretarako plazak gehitzea.
- Aisialdi osasungarriko alternatibak gazteentzat.
- Gazteentzako topaguneak sortzea.
- Udalaren kirol zerbitzuak handitzeko eta hedatzeko dirulaguntzak.
- Herritarrentzako sarbide libreko kirol instalazioen eraikuntza bultzatzea.

## INGURUMENA

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu sarea.
- Energia transformazio komunitarioko Gipuzkoako bulegoa sortzea.
- Gipuzkoako ibai harroak, hondartzak eta itsasertzak garbitzea.
- Gipuzkoako Aldundiaren jarduerari lotutako karbono aztarna konpentsatzea.


## BIDE AZPIEGITURAK

- Motorzaleak babesteko sistemak instalatzeko azterketa.

## BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

- Kirol Ekipamenduen erabilera genero ikuspegitik.

Bigarren fasean, **proiektuak bozkatzekoan**, aurkeztutako 36 proiektuetatik parte-hartzaileek, **gehienez, 10 proiektu** aukeratu behar izan zituzten. Azpiko koadroak parte-hartzea islatzen du:




Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren 2. fasearen esparruan, **guztira, 9.240 galdetegi/txartel** jaso dira herritarrengandik. Horietatik, **1.866 EZ** dira **onartu** parte hartzeko aldez aurretik ezarritako balditzak ez betetzeagatik:

- Gutxieneko adina ( 16 urte) ez izatea
- Beharrezkoa den identifikaziorik gabeko formularioak
- Ekarpenik gabeko formularioak, zuri utzitako txartelak

Beraz, azkenean, **7.374 galdetegi/txartel onartu dira** eta parte hartzeko erabili diren kanalak **onlinekoa (823)** eta **aurrez aurrekoa (6.551) izan dira**.

**Guztira, lagina prozesuan onartutako 7.374 pertsonak osatzen dute**


## Parte hartzeko kanala, 2. fasea



Prozesuaren 1. faseko joera bera ikusten da prozesuan **parte hartzen** dutenek erabilitako **kanalari** dagokionez. Horrela, herritar gehienek parte hartzeko aukeratu duten kanala aurrez **aurrekoa** izan da, % **88,84** (6.551 pertsona); **online** kanalak, berriz, % **11,16ko partaidetza** (823 pertsona) izan du.

### 2.5.1. Parte-hartzea generoaren arabera

2. fasean generoaren arabera izan den partaidetza mailari dagokionez, oro har ikusten da **emakumeen parte-hartzea (% 52,9) gizonena (% 46,4) baino pixka bat handiagoa dela**. Gainera, datuen arabera, gizonen partaidetzak joera handiagoa du onlineko kanalera, emakumeenak, aldiz, paperean du presentzia handiagoa.




## 2.5.2. Histograma

2.faseko parte-hartzaileen adina aztertzean ikusten da oro har **presentzia handiena izan duen adin tartea 30 eta 49 urte bitartekoena izan dela** eta partaidetza txikiena gazteenen adin tartea izan dela, **16 eta 17 urtekoena, ia ez baitu parte hartu.**

**Onlineko parte-hartzeari** erreparatzen badiogu, honetan ere ikus daiteke **30-49 urte bitarteko adin tartea** izan duela presentzia handiena.

**Aurrez aurreko** parte-hartzeari dagokionez, **30 urtetik gorako partaideek oso partaidetza maila antzekoa** izan dutela ikusten da.




### 2.5.3. Parte-hartzea eremu geografikoaren arabera

Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren 2. faseko parte-hartzea eremu geografikoaren arabera aztertuta, lortutako datuek adierazten dute **Donostia/ San Sebastián** berriro dela partaidetza handiena izan duen udalerria, partaidetzaren % 30,7 izan baitu.


Gainera, nabarmendu behar da **2. fase honetan presentzia handiena izan duten 4 udalerriak 1. fasean partaidetza handiena izandako berberak direla.**

Aipatzekoa ere bada **kapsulak partaidetza bolumen handiagoa bultzatu duela** iragan den udalerrietan, prozesuaren bultzatzaile gisa jardun baitu eta, horri esker, kapsula izan duten zenbait udalerrri parte-hartze handiena izan duten kokaleku bilakatu baititu, bai aurrez aurre, bai online kanalean.


#### Gutzizko parte-hartzea, 2. fasea



#### Online



#### Aurrez aurre



### 2.5.4. Emaitzak

Ondoren, proiektu bakoitzaren puntuazioa zehazten da.

1		5.089	<b>Gipuzkoako ibai arroak, hondartzak eta itsasertzak garbitzea</b> Limpieza de cuencas de ríos, playa y litoral guipuzcoanos
2		4.963	<b>Mendi publikoak garbitzea eta mantentzea</b> Limpieza y mantenimiento de los montes públicos
3		3.757	<b>Basoak bertako espezieekin basoberritzea</b> Reforestación de los montes con especies autóctonas
4		3.212	<b>Etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxe plazak irekitzea</b> Apertura de plazas de albergues para personas sin hogar
5		2.948	<b>Gazteek sustatutako enpresa proiektu berriak finantzatzea</b> Financiación de nuevos proyectos empresariales promovidos por jóvenes
6		2.933	<b>Lan aukerak gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeentzat</b> Oportunidades laborales para mujeres en riesgo de exclusión social
7		2.876	<b>Foru bidegorrietan hiri-altzariak, pixatokiak eta iturriak jartzeko dirulaguntzak</b> Subvenciones para instalar mobiliario urbano, urinarios y fuentes en los bidegorris forales
8		2.757	<b>Nahasmendu mentala duten adingabeei arreta emateko eguneko zentroa</b> Centro de día para atención a menores con trastorno mental
9		2.495	<b>Kontsumo hasiberrien, eskola porrotaren eta portaera arazoan prebentzio programa</b> Programa preventivo de los consumos incipientes, fracaso escolar y problemas del comportamiento
10		2.411	<b>Herritarrentzako sarbide libreko kirol instalazioen eraikuntza bultzatzea</b> Impulsar la construcción de instalaciones deportivas de acceso libre a la población
11		2.328	<b>Landa ingurune bide homologatuak egokitzea</b> Acondicionamiento de senderos homologados en el medio rural
12		2.289	<b>Elikadura jasangarria eta osasungarria sustatzeko ekimenak</b> Iniciativas para impulsar una alimentación sostenible y saludable
13		2.229	<b>Gipuzkoako talentu gaztea sustatzea</b> Promoción del Talento Joven del territorio de Gipuzkoa
14		2.124	<b>Familiarik gabeko gazteentzako prebentzio programa eta komunitate jarduerak</b> Programa preventivo y actividades comunitarias para jóvenes sin familia
15		2.032	<b>Gizartean euskararen ulermena zabaltzea</b> Extender la comprensión del euskera en la sociedad
16		2.022	<b>Aisialdi osasungarriko alternatibak</b> gazteentzat Alternativas de ocio saludable para la juventud
17		1.948	<b>Gaixotasun mentala duten pertsonak gizarteratzea</b> Socialización de personas con enfermedad mental
18		1.922	<b>Gipuzkoako ondarea zaharberritzea</b> Restauración del patrimonio de Gipuzkoa


19		1.662	<b>Motorzaleak babesteko sistemak instalatzeko azterketa</b> Estudio para Instalación de sistemas protección de motoristas
20		1.393	<b>Udalaren kirol zerbitzuak handitzeko eta hedatzeko dirulaguntzak</b> Subvenciones para ampliación y extensión de servicios deportivos municipales
21		1.291	<b>Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sarea</b> Red de puntos de recarga de vehículos eléctricos
22		1.260	<b>Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa babestea</b> Apoyo a la capacidad jurídica de las personas con discapacidad
23		1.249	<b>Gizarte bazterketako osasun mentalari buruzko sentsibilizazio kanpaina</b> Campaña de sensibilización de la salud mental en exclusión social
24		1.212	<b>Gazteentzako topaguneak sortzea</b> Creación de espacios de encuentro para la juventud
25		1.192	<b>Euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko bekak</b> Becas para el fomento de creación cultural en euskera
26		1.114	<b>Udalekuetarako eta udako jardueretarako plazak gehitzea</b> Incremento de plazas para colonias y actividades de verano
27		1.040	<b>Energia transformazio komunitarioko Gipuzkoako bulegoa sortzea</b> Creación de oficina de transformación energética comunitaria de Gipuzkoa
28		944	<b>Bizikletak elektrifikatzeko dirulaguntzak</b> Subvenciones para la electrificación de bicicletas
29		922	<b>Lantokietan euskaraz lan egitea</b> Trabajar en euskera en los centros de trabajo
30		914	<b>Kirol ekipamenduen erabilera genero ikuspegitik</b> Uso de equipamientos deportivos desde la perspectiva de género
31		665	<b>Denbora bankuak martxan jartzea</b> Puesta en marcha de bancos del tiempo
32		631	<b>Gaitasun humanistiko/sozialak sustatzea enpresen iraunkortasunean</b> Promoción de las competencias humanísticas/sociales en la sostenibilidad de las empresas
33		604	<b>Bizikleta bideen erabilera partekatuari buruzko gida</b> Guía sobre el uso compartido de vías ciclistas
34		583	<b>Kirolaren eremuan euskara sustatzea</b> Promoción del euskera en el ámbito deportivo
35		566	<b>Aldundiaren jarduerari lotutako karbono azarna konpentsatzea</b> Compensación de huella de carbono asociada a la actividad de la Diputación
36		203	<b>Galtzaundi egunkaria digitalizatzea</b> Digitalización del periódico Galtzaundi

Prozesuan lortutako emaitzak aztertu ondoren ikusi da herritarren boto gehien jaso dituzten lehen 10 proiektuak gauzatzeak ez duela betetzen Aurrekontu Irekiak 2022/23 protokoloaren oinarrietan aldeztu aurretik ezarritako aurrekontu osoa (2.000.000 €); hortaz, honako 3 proiektu hauek puntuazio ordenan sartzea erabaki da, prozesuari esleitutako aurrekontu osoa gauzatzeko.

Horrela, herritarrek gehien baloratzen dituzten 12 proiektuak osorik egingo dira, eta gainerako zenbatekoa, 2.000.000 €-ra iritsi arte (125.000 €), Aurrekontu Irekiak 2022/23 prozesuaren barruan puntuaziorik handiena lortu duen hurrengo proiektua (Gipuzkoako talentu gaztea sustatzea) egiteko erabiliko da.

1		<b>Gipuzkoako ibai arroak, hondartzak eta itsasertzak garbitzea</b> Limpieza de cuencas de ríos, playa y litoral gipuzkoanos	200.000€	7		<b>Foru bidegorrietan hiri-altzariak, pixatokiak eta iturriak jartzeko dirulaguntzak</b> Subvenciones para instalar mobiliario urbano, urinarios y fuentes en los bidegorris forales	200.000€
2		<b>Mendi publikoak garbitzea eta mantentzea</b> Limpieza y mantenimiento de los montes	200.000€	8		<b>Nahasmendu mentala duten adingabeei arreta emateko eguneko zentroa</b> Centro de día para atención a menores con trastorno mental	75.000€
3		<b>Basoak bertako espezieekin basoberritzea</b> Reforestación de los montes con especies autóctonas	200.000€	9		<b>Kontsumo hasiberrien, eskola porrotaren eta portaera arazoan prebentzio programa</b> Programa preventivo de los consumos incipientes, fracaso escolar y problemas del comportamiento	50.000€
4		<b>Etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxe plazak irekitzea</b> Apertura de plazas de albergues para personas sin hogar	200.000€	10		<b>Herritarrentzako sarbide libreko kirol instalazioen eraikuntza bultzatzea</b> Impulsar la construcción de instalaciones deportivas de acceso libre a la población	200.000€
5		<b>Gazteek sustatutako enpresa proiektu berriak finantzatzea</b> Financiación de nuevos proyectos empresariales promovidos por jóvenes	200.000€	11		<b>Landa ingurune bide homologatuak egokitzea</b> Acondicionamiento de senderos homologados en el medio rural	100.000€
6		<b>Lan aukerak gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeentzat</b> Oportunidades laborales para mujeres en riesgo de exclusión social	50.000€	12		<b>Elikadura jasangarria eta osasungarria sustatzeko ekimenak</b> Iniciativas para impulsar una alimentación sostenible y saludable	200.000€
13		<b>Gipuzkoako talentu gaztea sustatzea</b> Promoción del Talento Joven del territorio de Gipuzkoa	<del>200.000€</del> → 125.000€				

2.6. PARTE-HARTZEAREN EMAITZA OROKORRAK



### 3. GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN KONPROMISOAK

Aurrekontu Irekiak Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak bultzatutako ekimena da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren zenbait alderdi lehenesten laguntzeko helburu duena. Horren xedea da herritarren partaidetza maila areagotu eta hobetzea, bai eta partaidetza bidezko aurrekontuen sustapena eta hedapena bultzatzea ere, unibertsaltasunaren eta autoarautzearen printzipioetan oinarrituta eta ekintza positiboen, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, herritarrek horietan parte har dezaten sustatzeko eta errazteko.

Aurrekontu Irekiak prozesua Gipuzkoa Taldean integratuta dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan “entzumena” garatzeko sortu duen gunea.

Azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauaren 26. artikuluan ezarritakoa betez, zeina herritarren parte-hartzeari buruzkoa den eta aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza prozesuak arautzen dituen, une honetatik aurrera, lortutako emaitzen kontuak emango dira eta Aldundiak herritarren eskaerei erantzuteko hartuko dituen konpromisoak onartuko dira.

Horrela, prozesuaren emaitzak eta mugarrak prozesuan parte hartu duten pertsoneri jakinarazi eta helaraziko zaizkie, bai eta lurraldeko gainerako herritarrei ere, hainbat kanal erabiliz eta gauzatu den partaidetza ariketa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatutako entzuketa aktiboko ekimen honetan bildutako herritarren ekarpenak nabarmenduz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du partaidetza prozesuaren bi faseen emaitzak jakinarazteko eta bildutako herritarren eskaerei erantzuna emateko konpromisoa. Halaber, erakunde honek konpromisoa hartzen du eraginkortasunez kontuak emateko Aurrekontu Irekiak 2022/23 ekimenaren esparruan gauzatutako partaidetza prozesutik sortu diren proiektuen eta lehentasunezko jarduera politiken gauzatze mailari buruzko txosten honen bitartez.

Ebaluazio prozesu horren esparruan, honakoei ekingo zaie:

- a) Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuarekin lotutako hainbat gairi buruz herritarrek duten iritzia jasotzea, bi kanalen bidez:
- b) Posta elektronikoa, non ebaluazio galdetegi bat betez prozesuari buruzko iritzia emateko eskatzen den.
- c) Formulario digitala, Aurrekontu Irekiak prozesura zuzendutako berariazko atalean gaitua: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza>
- d) Barneko ebaluazio prozesu bat gauzatzea, Aurrekontu Irekiak ekimenaren etorkizuneko prozesuetan aplikagarriak izango diren hobekuntza gako guztiak identifikatzeko.

Informazio horrekin guztiarekin, Aurrekontu Irekiak prozesuaren amaierako ebaluazio txostena, genero ikuspegitik, idatziko da. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak ebaluazio txosten hori aurkeztuko du eta gauzatutako jarduketek eragindako genero eraginaren berri emango die, ondorioekin batera, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluari, Aldundiko sailei, Foru Gobernuaren Kontseiluari, Batzar Nagusiei eta herritarrei.

Ondoren, webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratuko dira txostenaren ondorioak

Aurrekontu Irekiak 2022/23 programaren garapenari buruzko informazio eta xehetasun guztiak <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza> helbidean topatu ahal izango dira.



GIPUZKOA  
**ETORKIZUNA**  
**ORAIN**